

Ekitaldiko azken kanpaina aprobetxatuz, asteburu honetan

Euskadiko Caritasek aurkeztu dituzten 2014. urteko txostenek pobrezia eta bazterkeria egoera iraunkorra adierazten dute

Euskadi, 2015eko ekainaren 3a.- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Caritasek, guztira, 47.348 pertsonari eman zieten arreta 2014an. Zifra hori aurreko urteetakoaren (2012 eta 2013) oso antzekoa da eta horrek berretsi egiten du gure argudioa: gure inguruan pobrezia bere horretan irauten duela, kronifikatu egiten dela. Izan ere, 2007 (krisiaren aurreko azken urte osoa) eta 2012 urteen artean Caritasek Euskadin arreta emandako pertsona kopurua %50ean igo da, eta ordutik egonkor mantentzen da.

Pobrezia-tasa ez da jaisten eta, denborak pertsona horien egoera larriagotu baino ez du egiten. Gabezia sasoiatarako zeuzkaten baliabideak agortuz doaz eta euren egoera ez doa hobera.

Diru-laguntzak

Euskadiko Caritasek diru-laguntzak eman zituzten 2014an, ia bost milioi euroko zenbatekoan; zehazki, 4.780.369 euro. Zifra hori ere azken hiru urteetako batez bestekoarekin bat dator. Laguntza-maila mantendu ahal izatea funtsezkoa da Caritasentzat. Bide batez, erakundeak eskerrak eman nahi dizkie beren baliabide ekonomikoak ahulenekin partekatzen dituzten pertsona, familia, erakunde eta instituzio guztiekin. Asteburu honetan –Corpus kanpainarekin batera-, Kristau Komunitateak Caritasen ekintza babestuko du beste behin ere, Euskadiko parrokia guztietan.

Boluntariotza

Era berean, Caritasen izenean bereziki azpimarratu eta eskertu nahi dugu gure erakundeetako 4.489 boluntarioek egiten duten lana: laguntzea, harrera egitea, entzutea, arreta, babes... Beste pertsoneri laguntzen, bereziki babesgabeenei laguntzen egiten duten lana funtsezkoa da gure eguneroko jardunean eta gure esker on osoa merezi du.

Borondatezko lan hori –doakotasunaren izenean- itxaropen iturri bat da Caritaseko pertsona guztientzat. Horregatik, asteburu honetan gure elizbarrutietan (Bilbo, Gasteiz eta Donostia) ospatuko dugun ekitaldiko azken kanpaina horren ardatza ekintza boluntarioaren doakotasuna da, Corpus Christi egunarekin bat etorriz.

Sentsibilizazioa

Caritasen lana pobrezia edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonekin egoteaz harago doa; Caritasek pobrezia, bazterkeria eta bidegabekeria sortzen duten kausak ezagutzera eman eta salatu nahi ditu. Horretarako, hainbat ekintza burutzen ditu; hala nola sentsibilizazio kanpainak eta ikastetxe, gizarte-zentroetan presentzia izatea, atek irekitzeko jardunaldiak, topaketak, azterlanak, komunikatuak, txostenak, prentsa oharrak...

Analisi kualitatiboa

Caritasek pobrezia eta bazterkeria egoeren errealitatearekin egiten duen eguneroko lanaren esperientziaren bidez, ikusten ari gara hazkunde ekonomikoari buruzko datuak eta enpleguaren hazkunde-aurreikuspenak ez direla pertsonen egunerokotasunean islatzen ari. Izan ere, pobrezia eta gizarte-babesgabetasuna gora doaz oraindik, ez soilik pertsona kopuruari dagokionez, baita bizi-baldintzen prekarietateari eta itxaropenari dagokionez ere.

Gizarte-bazterkeriaren ikuspuntutik ekin behar diogu gai honi, eta horrek agian emango dizkigu errealitate hori interpretatzeko gakoak. Esan beharra dugu ere, bazterkeriaz ari garenean, faktore ekonomikoaz gain, dimentsio pertsonalak, komunitarioak eta egiturazkoak hartzen ditugula kontuan.

Kalitatezko enplegua, herritarren eskubideen aitortza, politika sozial nagusietarako sarbidea (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, gutxieneko errentak, etxebizitza eta mendekotasun arloko zainketa) eta harremanen eta laguntza-sareen kalitatea eta sendotasuna oinarritzekoak dira.

[FOESSAk Euskadirako egindako 2014ko txostenak](#) honako arazoak identifikatu ditu Euskadiko bazterkeriaren faktore nagusi gisa: etxebizitza, enplegu eta osasunarekin lotutakoak (ordena horretan).

Langabeziaren arazoa konpontzeko ez da nahikoa lanpostuak sortzea; lanpostu horien baldintzak ere egokiak izan behar dira. Enplegu-sorkuntza horrek ekarri dezakeen gizarteratzeko gaitasuna eta horren kalitatea ere kontuan izan behar dira.

Babesgabetasun eta bazterkeria egoerek ez diete herritar guztiei berdin eragiten: Adingabeak bizi diren etxeetan, edo kideren batek urritasunen bat duen etxeetan edo mendekotasun egoeran dauden edadetuak dauden etxeetan babesgabetasun egoera bereziak bizi dituzte, eta horrek beste erronka bat jartzen digu: nola bideratu zainketa-prozesua bizitzan zehar.

Familiak aurre egin beharreko arazo handi bat etxebizitza erosi eta mantentzeko gastuak dira (FOESSA Euskadi eta EPDS 2014 txostenetan ere).

Gizartearen, pertsonen eta familiaren babesa dira gizarteratze-prozesuaren faktorerik garrantzitsuenak, baita babesgabetasun egoerei aurre egiteko ere. Familiak, auzokideek eta lagunak osatutako laguntza-sareak sendoak eta anitzak dira Euskadin, eta oso baliagarriak izaten ari dira. Hala ere, harreman horiek ahuldu egin direla sumatu dugu eta horrek arriskuan jartzen du kohesio soziala.

Babesgabetasun egoeran edo gizarte-bazterkerian dauden familiak ez dute epe laburrera hobetzeko modurik aurkitzen. Lana aurkitzeko ezintasuna, enplegura bideratutako prestakuntza jasotzeko aukera urriak... horrek guztiak jendearen motibazioa ahuldu egiten du. Pertsona horiei laguntzen dietenentzat ere zaila da aktibo eta motibatuta mantentzen laguntzeko tresna eta baliabideak garatzea: "krisiak itxaropena eta ilusioa kentzen dizkigu", adierazi du horietakoren batek.

Euskadiko pobrezia-tasak ez du behera egiten; are gehiago, handitu egiten ari da (batez ere herritar ahulenen artean, EPDS 2014), eta gabezia egoera larriak daude. Egoera horretan, DBE eta bestelako politika batzuk ezinbestekoak dira. Ez soilik langabezia handiko sasoiaren pobreziaaren aurkako mekanismo gisa, baizik eta desberdintasunaren handitze hori geldiarazteko tresna gisa (desberdintasunari buruzko datuak 2014an, EPDS, Euskadi-Espainia konparatiba).

Errealitate horren aurrean garrantzitsua da kohesio sozialaren alde eta krisitik elkarrekin irteteko moduaren alde lan egitea (ez ditzagun pertsona eta talde batzuk bidean ahaztuta utzi); pertsona guztien eskubideak aitortuko dituen gizarte baten alde, guztion duintasuna abiapuntutzat; azken finean, denon ongizatera bideratutako gizarte bat.

Proposamenak

Egoera konplexu honen aurrean, Euskadin daukagun bazterkeria eta gizarte-garapenaren egoerarekin lotutako (FOESSA 2014) proposamen batzuk egin ditugu:

- Garapen handiago edo txikiagoa adierazten duten pobrezia, gizarte-bazterkeria eta desberdintasun egoerek hobera egin arte, ezin dugu krisiaren benetako konponketaz hitz egin.
-
- Gizarte garapena bideratzeko politikak behar ditugu: Osasuna, hezkuntza, enplegua, aberastasunaren banaketa, eta abar, garapenerako inbertsio gisa ulertuta, ez gastu gisa.
- Krisiak gehien kaltetutako herritarren egoerei aurre egiteko beharra, gutxieneko errenten politikak (DBE), gizarte zerbitzuak, adingabeak dituzten familiekiko babes, mendekotasunaren zainketa eta abar sendotuz.
- Banaketa egiteko konpromiso etikoa: “beharrizanen arabera” fiskalitate bat eta herritarren pedagogia fiskala.
- Denontzako ongizatearen alde egingo duen gizarte baten eraikuntza, eskubide unibertsalean oinarrituta eta pobrezia eta bazterkeriaren belaunaldi arteko transmisioa geldiarazteko.
- Pertsonen zerbitzura egongo den ekonomia bat sortu beharra (ekonomia sozial eta solidarioaren adibideak berritzaileak dira, gero eta eragin handiarekin).

Aprovechando la celebración de la última campaña del curso este fin de semana

Las Cáritas de Euskadi presentan hoy sus memorias de 2014 que muestran una realidad persistente de pobreza y exclusión.

Euskadi, 3 de junio de 2015.- Las tres Cáritas de la Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE) atendieron en 2014 a través de sus respectivos programas a 47.348 personas, una cifra similar a los dos años anteriores (2012 y 2013), lo que viene a reforzar el argumento de que la pobreza en nuestro entorno persiste, se cronifica; de hecho, Caritas ha incrementado en Euskadi un 50% el número de personas atendidas entre el año 2007 (último año completo previo a la crisis) y el 2012, permaneciendo estable desde entonces.

El paso del tiempo sin que disminuya la tasa de pobreza no hace sino agravar la situación de las personas, que van agotando los recursos con los que contaban para tiempos de carencia sin que su situación tenga visos de mejorar.

Ayudas económicas

Las Cáritas de Euskadi dieron durante el año pasado (2014) ayudas económicas por un montante cercano a los cinco millones de euros, en concreto 4.780.369; cifra también en la media de los tres últimos años. Poder mantener el nivel de ayudas es fundamental para Caritas, que aprovecha para expresar su agradecimiento a todas las personas, familias, entidades e instituciones que comparten también parte de sus recursos económicos con quienes peor lo están pasando. Este fin de semana –con la campaña del Corpus- la comunidad Cristiana volverá a respaldar la acción de Caritas en todas las parroquias de Euskadi.

Voluntariado

De la misma manera, desde Caritas destacamos y agradecemos la inmensa labor de acompañamiento, acogida, escucha, atención, apoyo... que realizan las 4.439 personas voluntarias de nuestras entidades. Su labor de darse a las demás personas, en especial a las más desfavorecidas, es pieza clave de nuestra acción y digna de todo nuestro agradecimiento.

Esa labor voluntaria -nacida desde la gratuidad- es fuente y transmisión de esperanza para todas las personas de Caritas. Por ello, este fin de semana se celebrará la última campaña del curso en clave de gratitud de esa acción voluntaria en nuestras tres diócesis (Bilbao, Vitoria y San Sebastián), coincidiendo con la celebración del Corpus Christi.

Sensibilización

La labor de Caritas va más allá de acompañar a las personas en situación o riesgo de exclusión social; Caritas pretende dar a conocer y denunciar las causas que generan pobreza, exclusión e injusticia social. Para ello lleva a cabo durante el año numerosas acciones como campañas de sensibilización, charlas, presencia en centros educativos, aulas sociales, jornadas de puertas abiertas, encuentros, elaboración de estudios, comunicados, informes, notas de prensa...

Análisis cualitativo

Desde la experiencia del trabajo cotidiano de Cáritas con las realidades de pobreza y exclusión social, observamos que los datos de crecimiento económico y las previsiones de crecimiento del empleo no están impactando en el día a día de muchas personas, ya que la pobreza y la vulnerabilidad social continúan creciendo, no solo en número de personas afectadas, también en aumento de la precariedad de las condiciones de vida y de esperanza en el futuro.

Abordar la cuestión desde la perspectiva de la exclusión social nos puede ayudar a encontrar claves interpretativas de esta realidad, pues -además de los factores económicos- cuando hablamos de exclusión estamos teniendo en cuenta dimensiones personales, comunitarias, y estructurales.

Cuestiones como el empleo de calidad, el reconocimiento de derechos de ciudadanía, el acceso a las principales políticas sociales (educación, sanidad, servicios sociales, rentas mínimas, vivienda y el cuidado de la dependencia) y la calidad y densidad de las relaciones y redes de apoyo son claves.

El Informe [FOESSA para el País Vasco](#) (2014) identifica como principales factores de exclusión en Euskadi los problemas relacionados con la vivienda, el empleo y la salud (en este orden).

El desempleo no se soluciona exclusivamente en la creación de puestos de trabajo, sino también las condiciones de éste. Hay que tener también en cuenta –por tanto- la calidad y la capacidad de integración social que pueda generar la creación de empleo.

Las situaciones de vulnerabilidad y exclusión social no afectan a toda la población por igual: la vulnerabilidad de los hogares con menores, o con algún miembro con discapacidad, y la realidad de las personas mayores con situaciones de dependencia, nos sitúan también ante el reto de cómo abordar la cuestión de los cuidados a lo largo de la vida.

Otro gran problema con los que se encuentran las familias es el de hacer frente a los gastos de acceso y mantenimiento de la vivienda (también en FOESSA País Vasco y EPDS 2014).

El apoyo social, personal y familiar constituye uno de los factores más importantes de inclusión social y apoyo en la vulnerabilidad. Las redes de apoyo de la familia, la vecindad y las amistades en Euskadi son intensas y plurales y están siendo de gran apoyo para las familias. Aun así, se percibe un relativo deterioro de estas relaciones que ponen en riesgo la cohesión social.

Las familias en vulnerabilidad o exclusión social no encuentran un horizonte de mejora a medio plazo. La imposibilidad de acceder al trabajo, las escasas oportunidades de formación orientada al empleo, etc... están desmotivando fuertemente a las personas. Es difícil, también para quienes las acompañan, desarrollar herramientas y actividades que mantengan activas y motivadas a las personas: “la crisis nos está robando la esperanza y la ilusión”, manifiestan algunas de ellas...

Ante la evidencia de que la tasa de pobreza en Euskadi lejos de retroceder se extiende (especialmente entre la población más vulnerable, EDPS 2014), y se mantienen situaciones de privación importantes, políticas de rentas mínimas como la RGI se hacen indispensables. No solo como mecanismo de lucha contra la pobreza en una época de gran desempleo, sino como herramienta eficaz de freno al aumento de la desigualdad (datos de desigualdad 2014 EPDS comparativa Euskadi-España).

Frente esta realidad es importante apostar también por la cohesión social y por una salida conjunta de la crisis (no dejarnos personas ni colectivos por el camino); por una sociedad basada en el reconocimiento de los derechos humanos para todas las personas, desde su dignidad como persona; una sociedad –en definitiva- orientada al bien común.

Propuestas

Ante esta compleja situación traemos aquí algunas de las propuestas de Cáritas realizadas en el marco de la presentación del Informe sobre exclusión y desarrollo social en el País Vasco (FOESSA 2014):

- Hasta que desigualdad, pobreza, exclusión social y privación material como indicadores de mayor o menor desarrollo no mejoren significativamente no podremos hablar de una auténtica salida de la crisis.
- La necesidad de políticas que contribuyan al desarrollo social: sanidad, educación, empleo, redistribución de la riqueza, etc... entendidas como inversión en desarrollo y no como gasto.
- La necesidad de afrontar las consecuencias de la crisis en la población más afectada, reforzando las políticas de rentas mínimas (RGI), los servicios sociales, protección de las familias con menores, cuidado de la dependencia, etc.
- Compromiso ético redistributivo que pasa por una fiscalidad “a la altura de las necesidades”, en la que es imprescindible también una pedagogía fiscal de la ciudadanía.
- Construcción de una sociedad y una ciudadanía que apueste por el bien común, basada en derechos universales y con un modelo social orientado a poner freno a la transmisión intergeneracional de la pobreza y la exclusión.
- La necesidad de generar una economía al servicio de las personas (las experiencias de economía social y solidaria están siendo un ejemplo innovador, con un impacto cada vez mayor).